# A EREDUA / MODELO A

## GIZARTE LANGILEA

Ezagutza teorikoen proba

A) atala

## TRABAJADOR/A SOCIAL

Prueba de conocimientos teóricos

Apartado A)

**Erref. - Ref.: OP2018/03**

KONTUZ: Erantzunen Orriko 240. galderan, adierazi zein ariketa eredu egokitu zaizun: "A" aukera.

ATENCIÓN: Indique en la pregunta nº 240 de la Hoja de Respuestas el modelo de cuestionario que le ha correspondido: opción "A".

**ERANTZUNEN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS**

| | A | B | C | D |
|---|---|---|---|---|
| **240** | ■ | □ | □ | □ |

Galdera bakoitzeko launa erantzun daude, aurretik letra hauek dituztenak: "A", "B", "C" eta "D". Erantzun zuzena, ordea, bat bakarra da. Erantzunen Orrian ontzat eman duzun erantzunari dagokion letra markatu behar duzu, bertan erakusten den bezala.

Aurrena, galdera orrian erantzun, eta gero Erantzunen Orrian kopiatu ezazu egin duzun aukera hori. Kontuz ibili kopiatzerakoan, eta gaizki markatu baduzu, eskatu laguntza zaintzaile bati.

**EZ AHAZTU: Erantzunen Orrian markatu aukeratu duzun erantzuna. Erantzun bat bakarra markatu.**

Azterketaren bukaeran erreserbako 5 galdera daude eta aurreko galderaren bat baliogabetuz gero bakarrik ebaluatuko dira.

Azterketako galderak: 1etik 45era
Erreserbako galderak: 46tik 50era

En cada pregunta hay 4 posibles respuestas, precedidas de las letras "A", "B", "C" y "D", de las que sólo una es correcta. Debe marcar en la Hoja de Respuestas la letra que corresponda a la solución, tal como se señala en la misma.

Conteste primero en el cuadernillo y copie después la opción seleccionada en la Hoja de Respuestas. Tenga cuidado al copiar y si se equivoca, pida ayuda a un/a cuidador/a.

**RECUERDE: marque la solución en la Hoja de Respuestas y marque sólo una respuesta.**

El examen tiene al final del ejercicio 5 preguntas de reserva que sólo se evaluarán en el supuesto de anularse alguna pregunta.

Preguntas de examen: de la 1 a la 45
Preguntas de reserva: de la 46 a la 50

**KONTUZ: Ezagutza teorikoen probaren A) atalean erantzun okerrek penalizazioa dute (1/4)**

**ATENCIÓN: En la prueba de conocimientos teóricos apartado A) las respuestas erróneas penalizan (1/4)**

**OSO GARRANTZITSUA** / **MUY IMPORTANTE**

**LAUKITXOAK ONDO MARKATU** / **MARQUE CORRECTAMENTE LAS CASILLAS**




**EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!**

**¡¡¡NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!**

**Irun, 2019-06-14**

**Irún, 14-06-2019**

**1. Noiz ebaluatu behar dute administrazio organoek emakumeen eta gizonen egoeran duten eragin potentziala?**

A - Administrazio arau edo egintza bat egiten hasi aurretik.

B - Arau bat egiten hasi aurretik soilik.

C - Administrazio egintza bat egiten hasi aurretik soilik.

D - Administrazio arau edo egintza bat egitea plan estrategikoan jasota dagoenean soilik.

**2. Zer dagokie Batzar Nagusiei?**

A - Arauak emateko ahalmena Lurralde Historikoaren eskumeneko gaietan.

B - Gipuzkoako Lurralde Historikoaren legezko ordezkaritza.

C - Erregelamenduak emateko ahalmena Lurralde Historikoaren eskumeneko gaietan.

D - Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritza.

**3. Zer gaik EZ du lege organiko izaerarik?**

A - Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen garapenak.

B - Autonomia estatutuen onespenak.

C - Konstituzioaren 149.1 artikuluko oinarrizko araubide edo oinarri izaera duenak.

D - Konstituzioak berariaz aurreikusitako gaiek.

**4. Zer argitaratzera behartzen du publikotasun aktiboaren araudiak?**

A - Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren hiruhileko aitorpenak.

B - Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak.

C - Beren jabetzakoak diren ondasun higiezinen eta higigarrien zerrenda.

D - Langile guztiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak.

**5. Zer sartzen da zerga sailkapenaren barruan?**

A - Isunak.

B - Zehapenak.

C - Kontribuzio bereziak.

D - Kontratua ez betetzeagatiko penalizazioak.

**1. Los órganos administrativos han de evaluar el impacto potencial en la situación de las mujeres y en los hombres:**

A - Antes de acometer la elaboración de una norma o acto administrativo.

B - Únicamente antes de acometer la elaboración de una norma.

C - Únicamente antes de acometer la elaboración de un acto administrativo.

D - Únicamente cuando la elaboración de una norma o un acto administrativo están incluidos en el Plan Estratégico.

**2. Corresponde a las Juntas Generales:**

A - El ejercicio de la potestad normativa en las materias que sean competencia del Territorio Histórico.

B - La representación legal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

C - El ejercicio de la potestad reglamentaria en las materias que sean competencia del Territorio Histórico.

D - La representación de la Diputación Foral.

**3. ¿Qué materias NO están reservadas a rango de ley orgánica?**

A - El desarrollo de derechos fundamentales y libertades públicas.

B - La aprobación de Estatutos de Autonomía.

C - La que tenga la naturaleza de bases o régimen básico del art. 149.1 CE.

D - Las que expresamente prevea la Constitución.

**4. La normativa de publicidad activa obliga a publicar:**

A - Las declaraciones trimestrales de bienes y actividades de los representantes locales.

B - Las resoluciones de autorización o reconocimiento de compatibilidad que afecten a los empleados públicos.

C - La relación de los bienes muebles e inmuebles que sean de su propiedad.

D - Las retribuciones percibidas anualmente por todos los empleados.

**5. Dentro de la clasificación de los tributos se incluyen:**

A - Las multas.

B - Las sanciones.

C - Las contribuciones especiales.

D - Las penalizaciones por incumplimiento contractual.

**6. Zer du helburu 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoak?**

A - Espainiako ordenamendua pertsona fisikoen babeserako Europako erregelamendura egokitzea, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

B - Espainiako ordenamendua pertsona fisikoen babeserako Europako zuzentarauetara egokitzea, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

C - Datuen babesari buruzko araudi autonomikoa bateratzea.

D - Lehendik zegoen Europako araudia indarrik gabe uztea.

**7. Hauetako zein dira Gobernuaren funtzioak?**

A - Administrazioa eta barne-politika zuzentzea.

B - Aurrekontuak onestea.

C - Legegintzako agintea gauzatzea.

D - Gorteak eta Botere Judiziala ikuskatzea.

**8. Nork kontrolatuko du Estatuko Administrazio Orokorrak betetzen ote duen publikotasun aktiboaren betebeharra?**

A - Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak.

B - Kontu Auzitegiak.

C - Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak.

D - Datuen Babeserako Agentziak.

**9. Zer helburu du Batasunak, Europar Batasunaren Tratatuan aurreikusitakoaren arabera?**

A - Bakea, haren balioak eta herrien ongizatea sustatzea.

B - Merkatu ekonomia aske bat sortzea.

C - Barne araudia bateratzea estatu kide guztien artean.

D - Nazio Batuen Mundu Erakundea Europako lurraldetik kanporatzea.

**10. Nola hautatzen da Gipuzkoako diputatu nagusia?**

A - Batzar Nagusiek hautatuko dute batzarkideen artetik, bozketa ireki bidez.

B - Hauteskundeetan boto kopuru handiena izan duen talde politikoko hautagaia izango da.

C - Batzar Nagusiek hautatuko dute eskubidezko batzarkideen artetik, bozketa sekretu bidez.

D - Ez du zertan izan Batzar Nagusietako batzarkide.

**6. La ley orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, tiene por objeto:**

A - Adaptar el ordenamiento español al Reglamento Europeo relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales.

B - Adaptar el ordenamiento español a las Directivas Europeas relativas a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales.

C - Unificar la normativa autonómica en materia de protección de datos.

D - Derogar la normativa europea preexistente.

**7. Las funciones del Gobierno incluyen:**

A - Dirigir la Administración y la política interior.

B - Aprobar los presupuestos .

C - Ejercer la potestad legislativa.

D - Supervisar a las Cortes y al Poder Judicial.

**8. El cumplimiento por la Administración General del Estado de las obligaciones de publicidad activa será objeto de control por:**

A - El Ministerio de Hacienda y Administración Pública.

B - El Tribunal de Cuentas.

C - El Consejo de Transparencia y Buen Gobierno.

D - La Agencia de Protección de Datos.

**9. Tal y como reconoce el Tratado de la Unión Europea, La Unión tiene como finalidad:**

A - Promover la paz, sus valores y el bienestar de sus pueblos.

B - Generar una economía libre de mercado.

C - Unificar la normativa interior entre todos los Estados Miembros.

D - Desplazar a la Organización Mundial de Naciones en el territorio europeo.

**10. El Diputado o Diputada General de Gipuzkoa:**

A - Será elegido por las Juntas Generales entre sus miembros de derecho mediante votación abierta.

B - Será la candidata o candidato del grupo político más votado en las elecciones.

C - Será elegido por las Juntas Generales de entre sus miembros de derecho mediante votación secreta.

D - No tiene necesariamente que reunir la condición de miembro de las Juntas Generales.

**11. Derrigortasun data pasa ondoren, hizkuntza eskakizuna betetzea:**

A - Lanpostuan sartu eta jarduteko nahitaezko eskakizun bihurtzen da.

B - Meritutzat hartuko da lanpostuak betetzean nahiz kanpo hautapenetan.

C - Meritutzat hartuko da soilik lanpostuak betetzean.

D - Meritutzat hartuko da soilik kanpo hautapenetan.

**12. Zer egin behar dute euskal aginte publikoek beren azterlanak eta estatistikak egiterakoan?**

A - Sexu-aldagaia sartu, gaiaren garrantziaren arabera.

B - Sexu-aldagaia sistematikoki sartu.

C - Sexu-aldagaia sartu, Emakundek aldeko irizpena eman eta gero.

D - Sexu-aldagaia sartu, administrazio bakoitzeko berdintasun zerbitzuak txostena egin eta gero.

**13. Zer xedatzen du 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak,Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bigarren xedapen gehigarrian?**

A - Berezitasun batzuk aitortzen ditu Euskadiko udal araubidearen erregulazioan, foru araubidearen arabera.

B - Ezartzen du TAOLa ez dela aplikatzekoa Euskadin, foru araubideari dagokiolako.

C - Euskadiko toki-erakundeen berezitasun historikoak ukatzen ditu.

D - Ez ditu aitortzen euskal lurraldeetako toki-erakundeen foru berezitasun batzuk.

**14. Nolako eskumena du Estatuak gizarte-laguntzaren arloan, Autonomia Estatutuaren arabera?**

A - Ez du eskumenik.

B - Goi mailako ikuskaritza.

C - Koordinazioa.

D - Oinarrizko araudia ematea.

**15. Zein kasutan dira deuseztagarriak Administrazioaren egintzak?**

A - Ezinezko edukia badute.

B - Legez ezarritako prozedura erabat eta osorik baztertuta eman badira.

C - Konstituzioa urratzen duten xedapen administratiboak badira.

D - Ordenamendu juridikoa nolabait urratzen badute.

**11. A partir de su fecha de preceptividad, el cumplimiento del perfil lingüístico:**

A - Se constituirá como exigencia obligatoria para el acceso y desempeño del correspondiente puesto de trabajo.

B - Se valorará como mérito tanto en la provisión de puestos de trabajo como en la selección externa.

C - Se valorará como mérito únicamente en la provisión de puestos de trabajo.

D - Se valorará como mérito únicamente en la selección externa.

**12. Los poderes públicos vascos en la elaboración de sus estudios y estadísticas, deben:**

A - Incluir la variable de sexo en función de la relevancia de la materia de que se trate.

B - Incluir sistemáticamente la variable de sexo.

C - Incluir la variable de sexo, previo dictamen favorable de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

D - Incluir la variable de sexo, previo informe del Servicio de Igualdad de cada Administración.

**13. La Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en su Disposición Adicional Segunda:**

A - Reconoce una serie de peculiaridades en la regulación del régimen municipal en el País Vasco conforme al régimen foral.

B - Establece que la LBRL no es de aplicación en el País Vasco dado su régimen foral.

C - Rechaza la existencia de peculiaridades históricas de las Entidades Locales de los territorios vascos.

D - No reconoce unas peculiaridades forales de las Entidades Locales de los territorios vascos.

**14. Según el Estatuto de Autonomía, la competencia del Estado en materia de asistencia social es:**

A - No tiene competencias.

B - La Alta Inspección.

C - La coordinación.

D - El dictado de la normativa de bases.

**15. Son anulables los actos de la administración:**

A - Que tengan un contenido imposible.

B - Dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido.

C - Las disposiciones administrativas que vulneren la Constitución.

D - Que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico.

**16. Nola zabalduko da Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea?**

A - Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

B - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

C - Edozein komunikazio bide baliatuz.

D - Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orriaren bitartez.

**17. Zer gertatzen da Gipuzkoako Batzar Nagusietako agintaldia amaitzen denean?**

A - Diputatu nagusiak kargua utziko du eta bere eginkizunak betetzen jarraituko du diputatu nagusi berria hautatu eta izendatzen den arte.

B - Kargugabetutako diputatu nagusia behin-behinekotasun egoerara pasatuko da automatikoki.

C - Lehen diputatu nagusiordeak hartuko ditu behin-behinean diputatu nagusiaren funtzioak.

D - Diputatu nagusiak ez da kargugabetzen, Batzar Nagusiek diputatu nagusi berria izendatzean gertatzen baita hori.

**18. Bizilekua bortxaezina dela bermatzen da Konstituzioan; ondorioz:**

A - Bizilekuan sartzeko edo hura erregistratzeko, titularraren baimena edo ebazpen judizial bat behar dira beti.

B - Titularraren baimenik edo ebazpen judizialik gabe, ageri-ageriko delituaren kasuan baino ezingo da sartu.

C - Titularraren baimenik gabe ezin da bizilekuan sartu, ageri-ageriko delituaren kasuan salbu.

D - Bizilekuaren bortxaezintasuna ez da Konstituzioan aitortzen.

**19. Espainiako tributu sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak:**

A - Zerga administrazio guztiei aplikatuko zaizkie.

B - Zerga administrazio guztiei aplikatuko zaizkie, salbu eta tokiko erakundeei.

C - Zerga administrazio guztiei aplikatuko zaizkie, salbu eta autonomia erkidegoei.

D - Zerga administrazio guztiei aplikatuko zaizkie, salbu eta lurralde historikoei.

**16. El Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público Foral de Gipuzkoa se difundirá:**

A - A través del Boletín Oficial de Gipuzkoa.

B - A través del Boletín Oficial del País Vasco.

C - A través de cualquiera de los medios de comunicación.

D - A través de la página Web de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**17. Cuando finaliza el mandato de las Juntas Generales de Gipuzkoa:**

A - El Diputado o Diputada General cesará y continuará en el ejercicio de sus funciones hasta la designación y nombramiento del nuevo o nueva Diputado o Diputada General.

B - El Diputado o Diputada General cesante pasa automáticamente a situación de interinidad.

C - El Primer Teniente o Primera Tenienta de Diputado o Diputada General asumirá temporalmente las funciones del Diputado o Diputada General.

D - El Diputado o Diputada General no cesa, ya que su cese se producirá cuando las nuevas Juntas Generales designen al nuevo o nueva Diputado o Diputada General.

**18. La inviolabilidad del domicilio está garantizada en la Constitución de forma que:**

A - Para la entrada o registro domiciliario hace falta siempre consentimiento de la persona titular o resolución judicial.

B - Sin mediar consentimiento de la persona titular o resolución judicial, solo se podrá entrar en el domicilio en caso de flagrante delito.

C - Sin consentimiento de la persona titular no se puede entrar en el domicilio, salvo fragante delito.

D - La inviolabilidad del domicilio no está reconocida en la Constitución.

**19. Los principios y las normas jurídicas generales del sistema tributario español:**

A - Serán de aplicación a todas las Administraciones Tributarias.

B - Serán de aplicación a todas las Administraciones Tributarias, a excepción de las Entidades Locales.

C - Serán de aplicación a todas las Administraciones Tributarias, a excepción de las Comunidades Autónomas.

D - Serán de aplicación a todas las Administraciones Tributarias, a excepción de los Territorios Históricos.

**20. Nola emango dira administrazio-egintzak, egintzaren izaerak berak adierazteko eta konstarazteko modu egokiagoren bat eskatzen edo ahalbidetzen ez badu?**

A - Idatziz, posta bidezko jakinarazpenarekin.
B - Idatziz, jakinarazpen elektronikoarekin.
C - Idatziz, posta elektronikoaren bidez.
D - Idatziz, bitarteko elektronikoen bidez.

**21. Zer eragin izango dute zerga urraketa eta zigorren erregimena arautzen duten arauek?**

A - Ez dute inoiz atzeraeraginik izango.
B - Atzeraeragina izango dute irmoak diren egintzei dagokienez, horien aplikazioa interesdunarentzat mesedegarriagoa denean.
C - Atzeraeragina izango dute irmoak ez diren egintzei dagokienez, horien aplikazioa interesdunarentzat kaltegarriagoa denean.
D - Atzeraeragina izango dute irmoak ez diren egintzei dagokienez, horien aplikazioa interesdunarentzat mesedegarriagoa denean.

**22. Nori dagokio esklusiboki ahal publikoak baliatzeko jardunetan parte hartzea eskatzen duten eginkizunak betetzea?**

A - Zuzendaritzako langile profesionalei.
B - Lan kontratudun langile finkoei.
C - Lan kontratudun langile mugagabeei.
D - Funtzionario publikoei.

**23. Zein egintza edo erabaki arrazoitu behar dira?**

A - Eskubide subjektiboak edo legezko interesak areagotzen dituzten egintzak.
B - Organo aholku-emaileen irizpenei jarraitzen dieten egintzak.
C - Egintzak eteteko erabakiak.
D - Interesdunek proposatutako frogak onartzen dituzten egintzak.

**24. Zer da xedapen administratibo bat, Konstituzioa, legeak edo bere maila baino goragoko xedapenak urratzen dituenean, edo legez arautu beharreko gaiak arautzen dituenean?**

A - Erabat deusezak izango dira.
B - Deuseztagarriak izango dira.
C - Baliogabeak izango dira.
D - Eraginik gabeak izango dira.

**20. Los actos administrativos se producirán, a menos que su naturaleza exija otra forma más adecuada de expresión y constancia:**

A - Por escrito a través de notificación postal.
B - Por escrito a través de notificación electrónica.
C - Por escrito a través de correo electrónico.
D - Por escrito a través de medios electrónicos.

**21. Las normas que regulen el régimen de infracciones y sanciones tributarias:**

A - No tendrán efectos retroactivos en ningún caso.
B - Tendrán efectos retroactivos respecto de los actos que sean firmes cuando su aplicación resulte más favorable para el interesado.
C - Tendrán efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes cuando su aplicación resulte más desfavorable para el interesado.
D - Tendrán efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes cuando su aplicación resulte más favorable para el interesado.

**22. El ejercicio de las funciones que impliquen la participación en el ejercicio de las potestades públicas corresponden exclusivamente:**

A - Al Personal directivo profesional.
B - Al Personal laboral fijo.
C - Al Personal laboral indefinido.
D - A los funcionarios públicos.

**23. Serán motivados:**

A - Los actos que incrementen derechos subjetivos o intereses legítimos.
B - Los actos que sigan el dictamen de órganos consultivos.
C - Los acuerdos de suspensión de actos.
D - Los actos que acepten pruebas propuestas por los interesados.

**24. Las disposiciones administrativas que vulneren la Constitución, las leyes u otras disposiciones administrativas de rango superior o las que regulen materias reservadas a la Ley serán:**

A - Nulas de pleno derecho.
B - Anulables.
C - Inválidas.
D - Ineficaces.

**25. Zer da gizarte politika Europar Batasunaren zuzenbidean?**

A - Batasunak eta estatu kideek elkarrekin partekatzen duten eskumen bat.

B - Batasunaren eskumen esklusiboa.

C - Estatu kideen eskumen esklusiboa.

D - Ez da aurreikusten Europar Batasunaren tratatuetan.

**26. Autonomia Erkidegoaren menpeko ez diren erregistro publikoetan:**

A - Eusko Jaurlaritzak ezarriko ditu euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak.

B - Eusko Jaurlaritzak euskararen erabileraren normalizazioa sustatuko du, eskumena duten organoekin elkar hartuta.

C - Euskaltzaindiak ezarriko ditu euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak.

D - Eusko Jaurlaritzak ikuskatuko du betetzen ote diren euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak.

**27. Zer EZ du barne hartzen toki ordenantzak onartzeko prozedurak?**

A - Osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.

B - Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea.

C - Arlo horretan eskumena duen foru organoaren txosten nahitaezko eta loteslea.

D - Osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.

**28. Zein daude sartuta langile publikoen sailkapenean?**

A - Goi karguak.

B - Behin-behineko langileak.

C - Kargu politikoak.

D - Konfiantzazko karguak.

**29. Zer printzipio zaintzen dira Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremanetan?**

A - Hierarkia eta elkarrekiko errespetua.

B - Lankidetza eta elkartasuna.

C - Subsidiariotasuna eta kooperazioa.

D - Eraginkortasuna eta autonomia.

**25. En el Derecho de la Unión Europea, la política social:**

A - Es una competencia compartida entre la Unión y los Estados Miembros.

B - Es una competencia exclusiva de la Unión.

C - Es una competencia exclusiva de los Estados Miembros.

D - No se contempla en los Tratados de la Unión Europea.

**26. En los registros públicos no dependientes de la Comunidad Autónoma:**

A - El Gobierno Vasco establecerá los criterios de normalización del uso del euskera.

B - El Gobierno Vasco promoverá, de acuerdo con los órganos competentes, la normalización del uso del euskera.

C - Euskaltzaindia establecerá los criterios de normalización del uso del euskera.

D - El Gobierno Vasco supervisará la aplicación de los criterios de normalización del uso del euskera.

**27. El procedimiento de aprobación de las Ordenanzas locales NO incluye:**

A - Aprobación inicial por el Pleno.

B - Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días.

C - Informe preceptivo y vinculante el órgano foral competente en la materia.

D - Aprobación definitiva por el Pleno.

**28. Dentro de la clasificación del personal empleado público se incluye:**

A - Altos Cargos.

B - Personal eventual.

C - Cargos políticos.

D - Cargos de confianza.

**29. Las relaciones entre las instituciones comunes del País Vasco y los órganos forales de sus Territorios Históricos se basan en los principios de:**

A - Jerarquía y respeto mutuo.

B - Colaboración y solidaridad.

C - Subsidiaridad y cooperación.

D - Eficacia y autonomía.

**30. Nola hautatzen dira Europako Parlamentuko kideak?**

A - Estatu kideetako gobernuek hautatzen dituzte.

B - Batzordeak hautatzen ditu, haren eskumen orokorraren eta konpromiso europarraren arabera, independentzia berme osoa ematen duten pertsonen artean.

C - Europako Kontseiluak izendatzen ditu, gehiengo kualifikatuz.

D - Sufragio unibertsal zuzen, aske eta sekretuaz hautatzen dira.

**31. Zein dira lurralde mailako toki-erakundeak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 3.1 artikuluan dioenaren arabera?**

A - Udaletxea, kontzeju irekia eta mankomunitateak.

B - Udalerria, probintzia eta uhartea.

C - Eskualdeak, metropolialdeak eta mankomunitateak.

D - Barrutia, eskualdea eta udaletxea.

**32. Zein da Euskal Autonomia Erkidegoko Bitartekaritza Batzordearen egitekoa?**

A - Organo aholku-emailea izatea Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren artean sortzen diren gatazketan.

B - Erabakiak hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen eta lurralde historiko bakoitzekoen artean sor litezkeen eskumen-gatazken inguruan.

C - Ekonomia Itunaren aplikaziotik sortutako gatazka espezifikoak ebaztea.

D - Eskubide historikoetan aditu den organo aholku-emailea izatea Euskadiren eta Estatuaren artean sor litezkeen gatazkak bideratzeko.

**33. Nola izena du premia aparteko eta presazkoaren kasuan Gobernuak eman dezakeen behin-behineko legegintza xedapenak?**

A - Dekretu-legea.

B - Legegintzako dekretua.

C - Dekretu harmonizatzailea.

D - Presazko dekretua.

**34. Nolakoa izango da prozedura judiziala Konstituzioaren arabera?**

A - Nagusiki idatzizkoa izango da, salbu eta Salbuespen Auzitegietan.

B - Soilik idatzizkoa izango da.

C - Nagusiki ahozkoa izango da, batez ere auzi kriminaletan.

D - Ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke, hura garatzen duen Lege Organikoaren arabera.

**30. Los y las miembros del Parlamento Europeo:**

A - Son elegidos por los Gobiernos de los Estados Miembros.

B - Son elegidos por la Comisión en razón de su competencia general y de su compromiso europeo, de entre personalidades que ofrezcan plenas garantías de independencia.

C - Son nombrados por el Consejo Europeo mediante mayoría cualificada.

D - Son elegidos mediante sufragio universal directo, libre y secreto.

**31. Según el art. 3.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, las entidades locales territoriales son las siguientes:**

A - El ayuntamiento, el concejo abierto y las mancomunidades.

B - El municipio, la provincia y la isla.

C - Las comarcas, las áreas metropolitanas y las mancomunidades.

D - El distrito, la comarca y el ayuntamiento.

**32. La Comisión Arbitral del País Vasco es un órgano que tiene por misión :**

A - Ser el órgano consultivo ante los conflictos que surjan entre el Parlamento y el Gobierno Vasco.

B - Decidir sobre los conflictos de competencia entre las instituciones de la Comunidad Autónoma y los Territorios Históricos.

C - Resolver los conflictos específicos surgidos por la aplicación del Concierto Económico.

D - Ser el órgano de consulta experto en derechos históricos ante conflictos que surjan entre Euskadi y el Estado.

**33. ¿Cómo se denomina la disposición legislativa provisional que el Gobierno puede adoptar en casos de extraordinaria y urgente necesidad?**

A - Decreto-ley.

B - Decreto legislativo.

C - Decreto armonizador.

D - Decreto urgente.

**34. Según la Constitución, el procedimiento judicial:**

A - Será predominantemente escrito, salvo en los Tribunales de Excepción.

B - Será exclusivamente escrito.

C - Será predominantemente oral, sobre todo en materia criminal.

D - Podrá ser oral u escrito, según la Ley Orgánica que lo desarrolle.

**35. Nori aplikatzen zaio 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa?**

A - Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona fisiko eta juridiko guztiei.

B - Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona juridiko guztiei, unibertsitateei izan ezik.

C - Euskal administrazio publiko guztiei.

D - Euskal aginte publiko guztiei, Eusko Legebiltzarrari izan ezik.

**36. Zein organori dagokio legegintza ekimena, besteak beste, Konstituzioaren 87. artikuluaren arabera?**

A - Senatuari.

B - Auzitegiei.

C - Herri Arartekoari.

D - Administrazioari.

**37. Zer egin behar da behin-behineko langileak kargutik kentzeko?**

A - Interesdunari entzunaldia eskaini beharko zaio.

B - Estatu Kontseiluaren irizpena beharko da.

C - Librea izango da.

D - Zigor espedientea bideratu beharko da.

**38. Noiztik aurrera dituzte ondorioak, interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, isiltasun administratiboaren bidez gertatutako administrazio-egintzek?**

A - Ebazpena ematen denetik.

B - Ebazpena jakinarazten denetik.

C - Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea ebazpenik eman gabe igarotzen denetik.

D - Eskaera aurkezten denetik bi hilabetera.

**39. Zer argitaratzera behartzen du publikotasun aktiboaren araudiak?**

A - Kontratu guztien testu osoa.

B - Kontratu txikiei buruzko informazioa, hilero.

C - Aurrekontuak, aurrekontu partida guztiak deskribatuz.

D - Argitu beharreko urteko kontuak.

**35. La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, será de aplicación:**

A - A todas las personas físicas y jurídicas del País Vasco.

B - A todas las personas jurídicas del País Vasco, a excepción de las universidades.

C - A todas las administraciones públicas vascas.

D - A todos los poderes públicos vascos, a excepción del Parlamento Vasco.

**36. La iniciativa legislativa, conforme al art. 87 de la Constitución, corresponde, entre otros, a:**

A - El Senado.

B - Los tribunales.

C - El Defensor del Pueblo.

D - La Administración.

**37. El cese del personal eventual:**

A - Exigirá audiencia del interesado.

B - Exigirá dictamen del Consejo de Estado.

C - Será libre.

D - Exigirá la tramitación de expediente disciplinario.

**38. En procedimientos iniciados a solicitud del interesado, los actos administrativos producidos por silencio administrativo producen efectos:**

A - Desde que se dicte la resolución.

B - Desde que se notifique la resolución.

C - Desde el vencimiento del plazo máximo en el que debe dictarse y notificarse la resolución.

D - A los dos meses de la presentación de la solicitud.

**39. La normativa de publicidad activa obliga a publicar:**

A - El texto íntegro de todos los contratos.

B - La información relativa a los contratos menores, con carácter mensual.

C - Los presupuestos, con descripción de todas las partidas presupuestarias.

D - Las cuentas anuales que deban rendirse.

**40. Nori dagokio lurralde historikoetako erakundeen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua?**

A - Foru-erakundeei esklusiboki.

B - Foru-organoei, Eusko Jaurlaritzak onetsitako oinarri, jarraibide eta printzipioen arabera.

C - Foru-organoei, Eusko Legebiltzarrak onetsitako oinarri, jarraibide eta printzipioen arabera.

D - Estatuari esklusiboki, tokiko araubideari buruzko legediaren bitartez.

**41. Nola zuzendu ditzakete administrazio publikoek oker materialak?**

A - Bi hilabeteko epean.

B - Edozein unetan, ofizioz edo interesdunek eskaturik.

C - Estatu Kontseiluak aurrez aldeko irizpena emanda.

D - Autonomia erkidegoko organo aholku-emaileak aurrez aldeko irizpena emanda.

**42. Nola hasten dira prozedurak ofizioz?**

A - Organo eskudunaren erabakiz.

B - Beste organo batzuen erabaki arrazoituz.

C - Salaketaren bidez.

D - Interesatuaren eskabidez.

**43. Zer ahalmen dituzte lurralde historikoek, exekuzioa dagokien gaietan?**

A - Arauak garatzekoa, erregelamendukoa, administratiboa eta administrazio bidean berrikustekoa.

B - Araudiari dagokiona, erregelamendukoa, administratiboa eta administrazio bidean berrikustekoa.

C - Administrazio bidean berrikustekoa, esklusiboki.

D - Erregelamendukoa bere zerbitzuak antolatzeari dagokionez, administratiboa eta administrazio bidean berrikustekoa, esklusiboki.

**44. Zein da baieztapen zuzena gizarte zerbitzuak eskaintzeari buruz?**

A - Ez da udalerri guztiek beren kasa edo elkarturik eman beharreko zerbitzu bat.

B - Udalerri guztiek beren kasa edo elkarturik eman beharreko zerbitzu bat da.

C - 20.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerri guztiek beren kasa edo elkarturik eman beharreko zerbitzu bat da.

D - 5.000 biztanle edo gehiago dituzten udalerri guztiek beren kasa edo elkarturik eman beharreko zerbitzu bat da.

**40. La organización, régimen y funcionamiento de las instituciones de los Territorios Históricos corresponde a:**

A - Los órganos forales de forma exclusiva.

B - Los órganos forales, conforme a las bases, directrices y principios que apruebe el Gobierno Vasco.

C - Los órganos forales, conforme a las bases, directrices y principios que apruebe el Parlamento Vasco.

D - De forma exclusiva al Estado a través de la legislación sobre régimen local.

**41. Las Administraciones Públicas podrán rectificar los errores materiales:**

A - En el plazo de dos meses.

B - En cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados.

C - Previo dictamen favorable del Consejo de Estado.

D - Previo dictamen favorable del órgano consultivo de la Comunidad Autónoma.

**42. Los procedimientos se iniciarán de oficio:**

A - Por acuerdo del órgano competente.

B - Por acuerdo razonado de otros órganos.

C - Por denuncia.

D - Mediante solicitud del interesado.

**43. En las materias en las que la ejecución corresponde a los Territorios Históricos, éstos tienen las siguientes potestades:**

A - De desarrollo normativo, reglamentaria, administrativa y revisora en la vía administrativa.

B - Normativa, reglamentaria, administrativa y revisora en la vía administrativa.

C - Exclusivamente revisora en vía administrativa.

D - Reglamentaria para la organización de sus propios servicios, administrativa y revisora en la vía administrativa, exclusivamente.

**44. La prestación de los servicios sociales:**

A - No es un servicio que deberán prestar por sí o asociadamente todos los Municipios.

B - Es un servicio que deberán prestar por sí o asociadamente todos los Municipios.

C - Es un servicio que deberán prestar por sí o asociadamente todos los Municipios con población superior a 20.000 habitantes.

D - Es un servicio que deberán prestar por sí o asociadamente todos los Municipios con población superior a 5.000 habitantes.

**45. Nork onetsi behar ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratuetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatzeko jarraibideak?**

A - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak.
B - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu unitateek.
C - Finantzen eta aurrekontuen arloan eskumena duen departamentuak.
D - Diputatuen Kontseiluak.

**46. Zein kasutan izango dira erabat deusezak administrazio publikoen egintzak?**

A - Arau-hauste penal badira.
B - Hierarkia dela eta nabarmenki eskumenik ez duen organo batek emanak badira.
C - Ordenamendu juridikoa nolabait urratzen badute.
D - Konstituzioan ezarritako edozein eskubide edo askatasun kaltetzen badute.

**47. Zeren arabera eskatuko dira izaera pertsonaleko zergak?**

A - Kontuen Auzitegiak ezarritako arauen arabera.
B - Zergapetutako objektuaren izaerari egokiagoa zaion lurraldetasun irizpidearen arabera.
C - Egoitza irizpidearen arabera.
D - Ogasuneko Ikuskaritzak ezarritako arauen arabera.

**48. Zeri aplikatuko zaizkio publikotasun aktiboari buruzko xedapenak?**

A - Alderdi politikoei.
B - Urtebetez laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitate pribatu guztiei.
C - Merkataritzako sozietate guztiei, baldin eta administrazioek horietan partizipazioren bat badute.
D - Administrazioaren ekarpenak jasotzen dituzten fundazio guztiei.

**49. Nork ebatziko du auzia, izen ofizialei buruzko gatazkarik piztuko balitz toki erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean?**

A - Eusko Jaurlaritzak, aurrez Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiari iritzia eskatuta.
B - Eusko Jaurlaritzak, aurrez Euskaltzaindiari iritzia eskatuta.
C - Toki erakundeek, aurrez Euskaltzaindiari iritzia eskatuta.
D - Toki erakundeek, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak aldeko txostena egin ondoren.

**45. La aprobación de instrucciones sobre la inclusión de cláusulas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres en los contratos de la Diputación Foral de Gipuzkoa le corresponde:**

A - Al Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
B - A las unidades departamentales para la igualdad de mujeres y hombres.
C - Al departamento competente en materia de finanzas y presupuestos.
D - Al Consejo de Gobierno Foral.

**46. Son nulos de pleno derecho los actos de las Administraciones Públicas:**

A - Constitutivos de infracción penal.
B - Dictados por órgano manifiestamente incompetente por razón de jerarquía.
C - Que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico.
D - Que lesionen cualquier derecho o libertad establecido en la constitución.

**47. Los tributos de carácter personal se exigirán:**

A - Conforme a las normas que establezca el Tribunal de Cuentas.
B - Conforme al criterio de territorialidad que resulte más adecuado a la naturaleza del objeto gravado.
C - Conforme al criterio de residencia.
D - Conforme a las Normas que establezca la Inspección de Hacienda.

**48. Las disposiciones en materia de publicidad activa serán aplicables a:**

A - Los partidos políticos.
B - Todas las entidades privadas que perciban durante el período de un año ayudas o subvenciones públicas.
C - Todas las sociedades mercantiles en cuyo capital social tengan alguna participación las Administraciones.
D - Todas las fundaciones que reciban aportaciones de las Administraciones.

**49. En caso de conflicto entre las Corporaciones Locales y el Gobierno Vasco sobre las nomenclaturas oficiales:**

A - Resolverá el Gobierno Vasco, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Española.
B - Resolverá el Gobierno Vasco, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.
C - Resolverán las Corporaciones Locales, previa consulta a la Real Academia de la Lengua Vasca.
D - Resolverán las Corporaciones Locales, previo dictamen favorable de la Viceconsejería de Política Lingüística.

**50. Nola deitzen zaio Konstituzioan Gorte Nagusien xedapenari, zeinaren bidez ezartzen baitira autonomia erkidegoei –guztiei edo baten bati– Estatuaren eskumeneko gaietan bakoitzak beretzako lege-arauak emateko ahalmena esleitzeko printzipio, oinarri eta ildoak?**

A - Lege bateragarria.
B - Oinarri legea.
C - Esparru-legea.
D - Errege dekretu-legea.

**50. ¿Cómo denomina la Constitución a la disposición de las Cortes Generales que fija los principios, bases y directrices para atribuir a todas o a alguna de las Comunidades Autónomas la facultad de dictar, para sí mismas, normas legislativas en materia de competencia estatal?**

A - Ley armonizadora.
B - Ley de bases.
C - Ley marco.
D - Real Decreto-ley.